

A portrait of Jacques Delors, an elderly man with glasses, wearing a light blue striped shirt and a dark tie. He is looking slightly to the right of the camera. The background is a blurred office setting with bookshelves.

ELKARRIZKETA

JACQUES DELORS

«HEZKUNTZA-GIZARTEA
EPE LUZEAN KOKATZEN
DA, ETA GURE ARAZORIK
FUNTSEZKOENEN
KONPONBIDEAREN
OSAGIA DA»

Bi dira Jacques Delorsen ibilbide luze oparoan azpimarra daitezkeen ekarpen historikoak: batetik, Europar Batasunaren eraikuntzarako ekarria eta, bestetik, hezkuntzak aurrez aurre dituen erronkak eta bizitza osoko hezkuntza bermatu behar duten zutabeak ulertzeko era jakin baten harira eginikoa. Hezkuntza da elkarrizketa honen ardatz nagusia, baina begietatik inoiz galdu gabe, hala ere, hezkuntzaren dimentsio europarra eta unibertsala, euskaldunok gauden eta egon nahi dugun tokiak ematen digun ikuspegi berezitik begiratua.

Hezkuntzaren eremuan, Jacques Delorsen irudia, XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostenari lotzen zaio gehienbat, bera batzordeburu zela idatzi baitzen “Hezkuntza: altxor ezkutua”. Txosten horrek eragin ikaragarria izan zuen mundu osoan. Euskal Herrian, hain zuzen ere, Euskal Curriculum lantzeko oinarri izan dira txostenak aurreikusten dituen hezkuntza ereduaren lau zutabeak (ikasten ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea); eta lau horiei beste zutabe bat erantsi zaie, bosgarrena: komunikatzen ikastea. Curriculum hori ikastolek, kristau eskolek, herri eskolaren zati batek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak elkar hartuta egin dute. Bigarren une batean, Euskal Curriculumerako hurbilpen hau aintzat hartua izan da Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum ofizialetan ere.

UNESCOrentzat “Hezkuntza: altxor ezkutua” izenburuz idatziriko txostena 1996an eman zen argitara, duela hamasei urte beraz. Nolako eragina izan du, zure ikuspegitik, txosten horrek hezkuntza ulertzeko eta aztertzeko eran?

Nire ustez, txostenak aipatzen dituen proposamen ugarien arteko batzuk mundu zabaleko hezkuntzari buruzko saio nazionaletan txertatu dira. Baina ezagunena, funtsezko erreferentzia, garai hartan zehaztu eta nire kideei aurkeztu nizkien hezkuntzaren lau zutabeak dira, haien bidez saiatu bainintzen hezkuntzaren xedeak eta oinarriak laburbiltzen eta argitzen. Lau zutabe horiek (ikasten ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea) eredu dira orain ere hezkuntzari buruzko gogoeta orotan. Honek berdin balio du etengabeko prestakuntzarako, hots, prestakuntza iraunkorrerako. Lau zutabe horiek indarrean jarzea da helduen hezkuntzari edo, modurik zabalduenean esateko, bizitza osoko hezkuntza sistema bati eskatzen zaiona.

Era berean, beste gai nagusia ere, aukera berdintasunarena, erreforma ororen muinean

1. Amartya Sen-ek ingelesezko ‘expertise’ (trebetasuna) eta ‘capacity’ (gaitasuna) nahastuz osatutako neologismoa, giza kapitalaren inguruko eremu semantikoan erabilia: giza garapena jendearen aukerak zabaltzeko prozesua da, norberaren ‘kapabilitateak’ areagotuz mamitzen dena.

dago. Nik horri kapabilitate¹ nozioa eranstean diot, Amartya Sen-en hitza erabiltzearen. Nozio horrek asko lagundu dit azken urteotan, hezkuntzaren inguruko kontuak direla-eta nigana jo izan duten bakoitzean, zeren gogoeta horiek, nire ustez, lanmerkatuarekin eta lan eskaintza eta eskaeraren arteko orekarekin loturiko gaiak beste modu batera pentsatzera eramaten baikaituzte. Beste horrenbeste esan daiteke hezkuntzan porrot egiten dutenen arazoa, sistemak atzean uzten dituen arazo kezkarria, ulertzeko garaian. Enplegu, Errenta eta Gizarte Kohesioaren Kontseiluan buru nintzela, hainbatetan aipatu genituen gai hauek, eta, berariaz, diplomarik edota prestakuntza baliagarririk gabe eskola uzten dutenei eskainitako txosten berezi batean. Atzean geratutako horiek, ikaskuntzan porrot egiten duten horiek, beren buruan konfiantza erabat galdu duten gazteak dira. Autoestimua funtsezkoa da. Hezkuntza sistemak haur bakoitzari lagundu behar dio, familiarekin batera jakina, bere kualitate eta akatsez, bere aukera eta gabeziez hobeto jabetzen.

Hezkuntza sistemak haur bakoitzari lagundu behar dio, familiarekin batera jakina, bere kualitate eta akatsez, bere aukera eta gabeziez hobeto jabetzen.

Hezkuntzaz hitz egitean, hezkuntza sistemaz eta eskolaz pentsatu ohi da batez ere, baina bada, halaber, bestelako hezkuntza eragilerik.

Beste giltzarri bat, jakina, familiaren garrantzia eta gizarte jatorria dira. Funtsezko osagaia da eskola, baina ez da gizarte osoa. Beraz, hezkuntza-gizarte batek familien eta helduen erantzukizuna bilatzen du, ez soilik eskolarena.

Familiak ez dira gurasoen heziketa mailara bakarrik mugatu behar, ez, Euskal Herria ongi ezagutzen dut, horregatik aintzat hartzekoak dira lanaren estimua, baliagarria gertatzeko grina eta ahaleginean sekula ez etsitzea ere. Aitak, adibidez, nekazaritzan edo industrian lan egiten du, eta amak ere laguntzen dio, etxeko lanez arduratzeaz gain. Lan kultura ederra da, norberaren errealizaziorako eta, aldi berean, besteentzat baliagarri gertatzeko bidetzat hartuta. Baina gogor harritu nau zera ikustek: lanaren kultura ez da hainbeste arrakastaren kultura, baizik eta baliagarritasunarena, elkartasunarena. Baldin eta 14 edo 16 urtetan gazte bat lan batean hasten bada, familiari laguntzen dio eta, era berean, lanaren balioaren xedea ikasten du, eta horrek hezkuntzaren alorrekoa baino ez den gogoeta batera garamatza, aldizkatzearen² betekizunari buruz. Maiz esaten da alemaniar erako aldizkatzea aro industrialari baino ez zitzaiola lotzen. Ez da, ordea, hala; aldizkatzea beti dago indarrean, eta 12, 14 edo 16 urte dituzunean ez dakizu zeure norabidea bilatzen, baina hilabete batez edo pare batez lanbide batean jarduteak berak hezi egingo zaitu, eta hori bera izan daiteke bizitzarako eta lanerako norabidea aurkitzeko modurik egokiena. Hau da, aldizkatzeak, bi osagai funtsezko horiek –hezkun-

Arriskurik handiena da, aldi berean, gaurko indibidualismoaren garaipenak eta herrixka globalak ekar dezaketen etsipena. Errorik ez badugu, identitate bila ibiliko gara mundu nahasgarri honetan. Baina identitate horiek era positiboan hartu behar dira. Tradizioaren eta modernitatearen arteko betiko tirabira da, eskatu beharreko sintesi berria.

tza eta lana– bere baitan biltzen dituzenez, bidea eskaintzen du nork bere burua eraikitzeko, bere buruan konfiantza hartzeko, bere etorkizuna moldatzeko.

Eskola ez da bizitzarako dagoen igarobaimen bakarra. Gizartearen osagai funtsezkoa da, baina ez bakarra. Hezkuntza-gizartearen norbera da, aldi berean, hezitzailea eta hezia. Hezkuntza-gizarte batek gizakien arteko elkar ulertzea erraztuko du, lehenik eta behin norberaren kolektibitate naturalean, baina baita mundua ulertzeko ere. Horrelako gizarte batek, halaber, demokrazia eta bakea bultzatzea bermatuko luke. Ez bakarrik botoaren bidez, baizik eta herritarren partaidetzaren bitartez ere bai. Beraz, eta Castoriadis-ek esana utzi zuenez, freskatu eta eraberritzeko premia latza duen demokrazia baten ondoriozko osagaia da hezkuntza-gizartearen, noiz eta hedabideen botereak eta bizitza politikoan daukaten eragin gero eta handiagoak unean unekoa edo krisia lehenesten duten unean hain zuzen ere.

Zuk zuzendu zenuen UNESCOrentzako txostenean, honela definitzen da hezkuntza: “kulturen eta balioen eramailea, gizarteratzeko gune baten eraikuntza eta egitasmo komun baten arragoa”. Nola ekar genezake hezkuntzaren definizio hau Euskal Herrira eta, oro har, hizkuntza eta kultura propioak dituzten Estaturik gabeko herrietara?

Kontua zera da: besteekin batera bizitzen, elkarrekin bizitzen ikastea. Hau da, pluralismoa eta aniztasuna onartzea. Estatuak zein komunitate tradizionalagoak konprometitzen dituzten gertariak eraiki dute gure mundua. Zaila da ulertarazten gutariko bakoitza partaide garen komunitatearekiko elkartasunez jokatzearaz gain, elkartasunez jokatu behar dugula, aldi berean, norbera baino lehena-gokoa –eta sarri norberarentzat arrotza– den Estatu batekiko ere. Batasuna aniztasunean, azken batean.

2. Eskolan eta enpresan betetzen diren prestakuntza aldiak txandakatzen dituen askotariko hezkuntza programen multzoa. (Itzultzailearen oharra)

Bada, nolani ere, alderdi unibertsal bat formula horretan: gaurko inbidualismoaren aurkako nire borroka. Hots, jendeari sinistarazten zaio norbera dela bere patuaren jabe bakarra, norberaren loturak ez direla garrantzitsuak, denok bilakatu gaitzekela herrixka globaleko biztanle anonimo. Hala ere, garrantzitsua –eta Euskal Herrian ederki dakizue– zera esatea da: nik erroak ditut, partaidetzazko komunitateak ditut, harro nago horietaz eta nireganatu nahi ditut. Eta hezkuntzak horretan lagundu behar du. Arriskurik handiena da,aldi berean, gaurko inbidualismoaren garaipenak eta herrixka globalak ekar dezaketen etsipena. Errorik ez badugu, identitate bila ibiliko gara mundu nahasgarri honetan. Baina identitate horiek era positiboan hartu behar dira. Tradizioaren eta modernitatearen arteko betiko tirabira da, eskatu beharreko sintesi berria.

Bai. UNESCOren-tzako txostenean ikuspegi berbera ageri da, globalaren eta tokikoaren artean: “Munduko herritar pixkanaka bilakatzea, norberaren erroak galdu gabe eta nazioaren eta oinarritzko komunitateen bizitzan aktiboki parte hartuz”.

Lisboako agiria analisi eder bat da. Baina ez da gauzatu ekintza eredugarririk, ez ekintza pilotorik, ezta herrialde bakoitza norabide egokian abiatzera bultzatzeko ekimenik ere.

gerraren aurreko borroka gogorra izan zen, bereziki pertsonalismoaren filosofoen aldetik, Emmanuel Mounier tarteko. Nik ez dut neure burua ego bakartizat soilik definitzen, besteekiko harremanaren arabera definitzen dut neure burua, eta besteek nitaz pentsatzen dutenaren arabera ere bai. Pertsona ez da gizabanako bat. Eta beraz, hor dago loturei, lotura tradizionalai, eusteak dakarren guztia, ez, ordea, iraganaren gurtza hutsal gisa, baizik eta osatzen nauen elementu gisa, beste guztiekin elkarturik. Eta hau zinez da garrantzitsua mundu honetan, non nagusi baitabilta –garapena, gaurko ekonomia, kontsumoa, publizitatea, hedabideen nagusitasuna direla medio– hutsalergia eta uniformizazioaren mehatxua, edota, arriskuan berdina dena, nor bere baitara biltzearena.

Lisboako Kontseilu Europarrak (2000ko martxoa) aurreikusiriko 2010erako helburu estrategikoa honako hau zen: “mundu osoko eza-gutza-ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena

bilakatzea, hazkunde ekonomiko iraunkorrari eusteko gai izango dena, enpleguaren hobekuntza kuantitatibo eta kualitatiboarekin eta gizarte kohesio handiagoarekin batera”. Helburu hori lortzearen aurreikusiriko aldaketen artean, hezkuntza sistemak modernizatzeko egitasmo handinahi zehatza aurreikusten zen. **Hamabi urte geroago, nola ebaluatzen duzu hezkuntza sistemak hobetzeko aurreikusiriko asmoak eta lorturiko emaitzak?**

Hitzak hitz, errealitateari begiratu behar zaio. Zuk aipatzen duzun Lisboako egitasmoak izan du, nire ustez, eragin positiborik: Administrazio nazionalak erne jartzea, bereziki hezkuntza eta lan alorretakoak, etorkizunaren erronken aurrean. Baina Europar Batasunak ez ditu eskuratu, bitarte honetan, zehazturiko bidean aurrera garbi egitea ahalbidetuko zuketuen ekimen elementuak eta programak.

Lisboako agiria analisi eder bat da. Baina, europarron ekintza bateratuak zerbait lor dezakeela benetan sinesten bada, gobernuak aplikatzera bultzatu ditzaten ekimenak proposatu beharko dira. Lisboako egitasmoaren oinarria koordinazio metodo irekia zen, ingelesen gustukoa nolabait, eta esan behar

rra dago koordinazio metodo irekiak funtzionatzen duela baldin eta ados jartzeko borondatea badago. Baina ez da gauzatu ekintza eredugarririk, ez ekintza pilotorik, ezta herrialde bakoitza norabide egokian abiatzera bultzatzeko ekimenik ere.

Hori da gaurko egoera batera itxaropentsua ez den honetara ekarri gaituzten arrazoietakoa bat. Langabezia masiboa pairatzen ari gara, gazteen artean bereziki, eta hori guztiz da kezagarria, ni bezalako adinekoen eta gazteen arteko elkartasuna ez baita garaiz gauzatu. Hori zen nik, 1993an, Europako Kontseiluarentzat egindako Liburu Zurian, proposatzen nuen inbestimendua. Mezua adeitasun osoz entzun zen, baina ez zen aintzakoztat hartu, ezta mamitu ere. Nik, neure garaian, ez nituen gaurko aukera guztiak izan, baina lana bilatu ahal izan nuen. Eta, hortik aurrera, nigan konfiantza bildu ahal izan nuen, neure aukerak saiatu, bide bat aukeratu. Baldintzak aldatu dira, gazteriaren erronkei dagokienez, garaiz ez saiatzeagatik.

Gaurko egoera ez da, zinez, oso itxaropentsua, ezta aldekoa ere. Zein dira, zure ustez, Europako hezkuntza sistemek egoera hobetzeko egin litzaketen lehentasunezko ekarpenak?

Europar badira elkarrengandik urrundu doazen egoerak eta zailtasun ekonomikoekin loturiko oztopo berriak. Batetik, lehiakortasun ekonomikoaren zerbitzurako hezkuntza dago, eta, bestetik, gizarte justiziaren eta aukera ezberdintasunaren aurkako borrokaren zerbitzurako hezkuntza. Horra bi giltzarriak, biak uztartu beharrekoak, ekonomia eta finantza alorretako ekinbideez gain.

Europak justiziazko oreka bilatu behar du. Eta bada horretarako arrazoi gehigarri bat, nazioartean gaur egiten diren txosten orotan ageri dena: bizitza maila eta ahalbideak hobetu zaizkion gutxiengo txikiaren eta eskalako beheko mailaren arteko tartea handitu egin da. Ezberdintasun hori areagotu baldin bada, nahiz eta hezkuntzara baliabide gehiago bideratu eta eskolaldia luzeagoa izan, bada zerbait behar bezala ez dabilena. Erreferentzia on bat Finlandiako sisteman daukagu: asmatu dute pertsonaren garapena eta gizarteratzea lotzen, eta beharrezko gaitasunei buruzko jakintzak eta aukera berdintasuna bultzatzen bizitza osoko hezkuntzan.

Gobernuek zalantza egiten dute aukera berdintasunaren eta lehiakortasun ekonomikoaren zerbitzurako hezkuntzen artean. Krisi ekonomikoa nagusi den honetan, ez al duzu arriskurik ikusten eskola lehiakortasun eta merzimentukraziaren polora lerratzeko? Ez ote dago hezkuntza sistema ekonomiaren eskaerakiko mendekoegi bilakatzeko arriskurik?

Gobernuak ongi konturatu direnez, munduko gainerako herriek europarroi egiten diguten de-

safioa gaitasunen eta lehiakortasunaren alorretan jokatzen da. Eta, horren ondorioz, begi-bistakoa da irtenbide baten beharrak, larritasunak behartu egiten gaituztela ditugun indarrak ahalik eta hobekien erabiltzera, sortzaileak eta lehiakorrek izan daitezkeen indarrak hain zuzen ere. Baina hori egiterakoan gizartearen gainerako zatia, gehien-goia alegia, ahazten baduzu, ez zara inora iritsiko, kohesio sozial nahikoa ez izateagatik.

Beste adibide txundigarri bat jarriko dizut. Duela hogeituzeroztik dugu Natura Ama babestu beharraren ideia, bai geure mesedean, baita etorriko direnenetan ere. Beraz, inguruneari buruzko politika bat behar genuen, eta langabezia ma-

siboari eta jarduera urriari aurre egin behar diegun honetan, hazkunde klasikora itzuli dira gure gobernu guztiak. Uko egiten diote gizakiaren denborak eta natura gehiago errespetatuko dituen hazkunde eredu berri bati, nahiz eta honek enplegu gehiago ere sortuko lukeen. Prest daude erabat bazter batera uzteko inguruneari buruz edo hiriaren eta nekazari munduaren arteko orekari buruz oraindik orain pentsatzen zutena. Nekazari mundua altxor bat da, baina nork hitz egiten du horri buruz gaur egun? Nork adierazi behar du nekazariak, guretzat

ekoizteaz gain, paisaia ere zaintzen dutela? Alderdi kualitatiboa ahaztu egiten da, urgentziari erantzun behar baitaio, zeinahi direlarik ere bitartekoak. Miope bilakatuta gaude, eta ez zaigu axola etorkizuna eta garapen eredu berri bat sakrifikatzea, eredu horrek gainera, berriz diot, ingurunerako eta bizitza estilo hobe baterako bermea eskainiko ligu-keelarik.

Epe laburrean zentratutako garaian bizi gara, eta ahaztu egiten ditugu ikuspegi guztiak, epe luzean begiratzen duen oro. Hezkuntza-gizartea epe luzean kokatzen da, eta gure arazo funtsezkoenen konponbidearen osagaia da.

Batetik, lehiakortasun ekonomikoaren zerbitzurako hezkuntza dago, eta, bestetik, gizarte justiziaren eta aukera ezberdintasunaren aurkako borrokaren zerbitzurako hezkuntza. Horra bi giltzarriak, biak uztartu beharrekoak, ekonomia eta finantza alorretako ekinbideez gain. Europak justiziazko oreka bilatu behar du.